



ETXALARKO UDALA

Andutzeta, 15 - 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232
e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

Izaskun Gortari Sein, Etxalarko Udaleko idazkariak, neronek ZIURTATUTA:

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2026ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, bertzeak bertze, ondoko erabakia hartu zuen:

4.- Larrapil auzoan lur-jausia konpontzeko lanak: esleipena.

Gaia: Larrapil auzoan lur-jausia konpontzeko lanak.

Aurrekontua: 21.958,89 euro (BEZ kanpo).

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeak (140. artikuluan), Nafarroako Toki Administrazioari 6/1990 Foru Legeak (8. artikuluan) eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak (21. artikuluan) ezarritakoari jarraituz,

Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1.- Larrapilgo bidean lur-jausia konpontzeko lanak Excavaciones Mikel Ubiria, S.L. enpresari esleitzea, 20.860,95 euroan (BEZ kanpo), zenbateko txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidez, eta memoria teknikoan ezarritako baldintzei loturik.
- 2.- Ebazpen honen berri eta memoria teknikoaren kopia ematea esleipendunari, beharrezko ondorioetarako.
- 3.- Ebazpen hau jakinaraztea prozeduran parte hartu duten enpresei, beharrezko ondorioetarako.

Jarduneko alkatea



Idazkaria